


VALDEREJOKO PARKE NATURALA



9



Arabako parkerik txikiena izan arren (3.496 hektarea), Valderejoko ekosistema eta paisaia ugari gordetzen ditu. Txunditu egingo gaituzte kareharrizko ebakidurek, urak marraztutako haitzarteeak, artadiak, pagadiak, pinudiek, ur jauziek, laboreek, eta larreek, Puron ibaiaren haran txiki honetan eskaintzen duten pasaiarekin. Carrias haitzeko, Vallegrulleko eta Recuencoko malkar alpinoek babesten dute.

Espazio babestu honek balio handiko ondare historiko eta naturala du bere baitan. Basakatua, arrano beltza, otsoa, orkatza, saguzarra eta basurdea elkarrekin bizi dira paraje pribilegiatu honetan, sai arrea bada ere jaun eta jabe, eta parkearen sinbolo. Valderejoko parke naturala Natura 2000 Sarean sartuta dago.



Gure abialekua Lalastra herria da. Autoa herriaren sarrerako aparkalekuan utzi beharko dugu. Erdigunean gaudela, uraska zahar bat ikusiko dugu. Bide batez, gozatu bisita oraindik etxebizitza eta eraikuntzen zapore tradizionala oso-osorik gordetzen duen herri apurretako batean. Ondoren, zati honetan GR-282rekin edo artzain bidearekin bat egiten duen ibilbidea hartuko dugu.

IBILBIDEA

0 km	Lalastra. Kale nagusia jarraituz parketxera iritsiko gara, eskuinera. Antzina eskola zen honek informazioa eta material didaktikoa eskaintzen ditu Valderejo parke natural bihurtu duten balioei buruz. Halaber, museo etnografiko apal baina interesgarri bat ere badu.
0,3 km	Gure ibilbideak ezkerreko bidea hartuko du hemen, parketxearen pareko errepide asfaltatua utziz.
0,5 km	Hesi bat igaro ondoren, zuzen jarraituko dugu GR-282tik, ezkerrean igotzen den bidea baztertuta. Hala, Villamardones herri abandonatuaren eta Puron ibaiaren ikuspegiez gozatzeko beta eskaintzen duen argigunera iritsiko gara.
1,6 km	Pinudi batean sartuko gara. Bidegurutzera iristean, ezkerrean joko du, "Portilla bidezidorra" izenekora. GR-282tik irtengo gara.

1,8 km	Zuzen jarraituko dugu, eskuinean beheren dagoen bidetik.
3,9 km	Bidegurutzea. Eskuinera bira egingo dugu, Portilla bidezidorra gisa balizatutako bidetik Riberarantz jarraituz, marka horien arabera.
5,2 km	Bidegurutzea. Zuzen jarraituko dugu, eskuinera igotzen den saihesbidea baztertuz.



Arteak, ipuruak eta ohiko landaretza mediterranearra izango dituzu lagun zati honetan.

5,3 km	Hesi bat gurutzatu eta jaitsi egingo gara. Hemendik aurrera Santa Ana mendiaren ikuspegi ezin lirainagoez gozatu ahalko dugu.
6,25 km	Jaitsiera gogorarekin jarraituko dugu. Arantzadun alabrez eginiko hesira iritsiko gara, gure ibilbidean ezkerrera biratuta. Hesia pasatu eta landa gurutzatuko dugu, seinaleak jarraituz, hau da, parkearen ibilbidea markatzen duten puntu horiak.



SAI ARREAREN JAURERIA

Valderejoko ekosistemak aniztasun handia du, artapen egoera oso onean, flora eta faunako hainbat espezie eta guzti. Sai arrea da nagusi, sai zuria, belatza edo belatz handia bezalako beste harrapari batzuekin batera, bidean aurki ditzakezun animalien artean. Are gehiago, Valderejon **dago Euskal Autonomia Erkidegoko sai arrearen koloniarik handiena**. Basoetan basakatuak, basurdeak, orkatzak eta soro muxarrak bizi dira, besteak beste, eta, ibaietan, amuarrain arrunta, suge gorbataduna, apo pintatu iberiarra edo buztanikara hori adeitsua.





PURON IBAIKO HAITZARTEA



Gure ibilbidearen ondoan, Ribera herri abandonatutik hurbil, Arabako parajerik ederrenetakoa dago: Puron ibaiko haitzartea. Zailtasun apur bat duen bidea jarraituz, minutu gutxitan **ur jauzi txikiek** ibaiertzeko baso eta haitzen artean ireki duten zuloa ikusi ahalko dugu. Sahats, makal, zuhaxka eta lore ugarik apaintzen dituzten ertzak. Leku hau guztiz gomendagarria da.



ITSASOAK ESTALIA

Duela milioika urte, leku hau itsasoak estaltzen zuen. Haitzei erreparatzen badiezu, **itsasoko animalien aztarnak** ikusi ahal izango dituzu, ostra, koral edo maskardun organismo txikien antzeko izakiak, egun fosil bihurtuta.

7,1 km

Beste hesi bat gurutzatu eta eskuinera jarraituko dugu, landaren ertzetik barrutia jarraituz, Ribera herrira iritsi arte.

7,3 km

Ribera. Eskuinera bira egingo dugu herria zeharkatzeko, gure ibilbideari jarraiki, Puron ibaiaren bidezidorrerantz igoz.

7,4 km

Berriz ere hartuko dugu GR-282, Lalastrarantz. Zuzen jarraituko dugu, zubi bat ezkerrean utzita. Haitzarera abiatuko gara, Lalastrako norabidean, ezkerrean sakan bat dugula. Legarrezko Puron bidezidorretik jarraituko dugu, artez inguratutik.



Gogotsu bazaude, ibilbidearekin jarraitu baino lehen, oso ideia ona izan daiteke ibaiko haitzarera hurbiltzea, ebakidura zoragarrien ikuspegiak ikusi ahal izateko. Kontuan hartu Puron bidezidorraren zati honetan ez dagoela gomendatuta bizikletan ibiltzea.

8,5 km

Hesia gurutzatuko dugu.

9 km

Polledo erreka gurutzatu eta lurrezko bide batera sartuko gara.



Baso hauetan txantxangorria, txioa, ur zozoa edo buztanikara bezalako espezieak bizi dira. Adi ibili!

9,4 km

Bidegurutzeta. Bi aukera daukazu: lurrezko pistatik jarraitu edo bidegurutzetan ezkerrera jo, GRko markak jarraituz, baina kontuan hartu bigarren aukera hori gogorragoa eta aldapatsuagoa dela.

9,8 km

Bi bideen lotura. Gorantz jarraituko dugu.

10 km

Bidegurutzera iristean, desbideratu egingo gara (ibilbidearen hasieraren 1,5 puntu kilometrikoa). Handik Lalastrarako urratsetara bueltatuko gara.

11,5 km

Lalastra.

11,6 km


Lalastrako aparkalekua. Ibilbidearen amaiera.



LALASTRA

Valderejoko parke naturaleko sarrera da. Parke naturalaren barruan dauden lau herrietako bat da, urtean zehar biztanleak dituen gutxietako bat. Ondare kultural handia gordetzen du bere baitan, garai zaharren origarri; besteak beste, Santa Elena eliza, **Errenazimenduko hilobi** eta guzti, **XVI. mendeko gurutzadurarekin; errota, garbitokia, ogi labea, ferratokia zaldikoa eta bolatokia**. Herri honetan dago, gainera, parkekoa, antzinako eskolan, eta egun informazio gune da.

IBILBIDEAREN PROFILA



LEKU INTERESGARRIAK



NATURA ETA PAISAIA

1. Valderejoko parke naturala
2. Puron ibaiko haitzartea
3. Santa Ana mendia

Inguruan:

- Vallegrull
- Gustaleko menhirra



KULTURA

1. Lalastra
2. Villamardones: ermita eta aurriak
3. Ribera: Done Eztebe elizako Erdi Aroko horma pinturak



AISIALDIRAKO GUNEAK

1. Lalastrako aisialdi gunea
2. Interpretazio zentroa eta museo etnografikoa Lalastran

MAPA



FITXA TEKNIKOA

Nola heldu:	Lalastratik, A-2622
Distantzia, guztira:	11,6 kilometro
Iraupena, gutxi gorabehera:	Ordu eta erdi
Zailtasuna:	Ertaina
Gomendatutako bizikleta:	BTTa
Desnibel metatua:	347 metro

EZ GERATU IKUSI GABE...

INGURU KULTURAK PRIBILEGIATUA

bilbide honetatik hurbil, kultura eta ondare aldetik balio handia duten oinarriak aurkituko dituzu, historiaurreak, erromanizazioak eta Erdi Aroak inguru honetako aberastasun naturalarekin elkartzen den legatua utzi baitigute. Halaber, honako hauek bisitatzea ezinbestekoa da: Corro, Pinedo eta Tobillaseko haitzean zulatutako **eremutarren kobak**; **Varonatarren dorre-jauregi** ikaragarria (irudian), XIV. mendeko arkitektura militarren adibide; **Angostoko monasterioa**, kondairaren arabera Ama Birjina bertan agertu zitzaizalarik Villanañeko artzain bati; **Tuestako parroikia** tenpluko atari erromanikoa; Burgosko **Valpuesta** herriko kolejiata, haranean dagoena eta gaztelaniazko lehenengo agerpenen agiri garrantzitsuak gordetzen dituen, edo **Añanako gaztagak**, ondare natural eta kulturala ezin hobeto zaintzen dutenak.

